

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua aurrera eramateko, hurrengoak dira proiektuaren arrakastarako beharrezkoak diren baliabideak, bai ukigarriak zein ukiezinak.

- **Baliabide fisikoak:**

Gure proiektuaren oinarria saltzen dugun produktu bera da beraz, gure instalazioaren eta materialen kalitate eta funtzionamendu zuzena ezinbestekoak dira. Bezeroen eskariei erantzuteko gure makinak egiteko lan kopurua egunero betetzea garrantzitsua da, gure produktua jarritako denboran ekoiztu ahal izateko eta produktibitatea ahalik eta hoberen joan ahal izateko. Gure materialak ahalik eta kalitate hobereana izatea oinarrizkoa da, gure langileek ondo moldatu eta montatu ahal izateko.

Horretaz gain, materiala kalitate ona izateaz arren, gure materiala ahalik eta ekologikoena izango da. Ingurumenarekin kontaktu handia izatea eta kontsumo arduratsua izatea gure enpresarentzat eta gure produkzioarentzat oso garrantzitsua da.

- **Baliabide intelektualak:**

Gure enpresa buruen esperientzia, hau da: gure esperientzia propioa, Know How-a..


Gure sistema patentatu dugu gure horrela beste batzuek gure asmakizuna komertzialki ez erabiltzeko eskubide eksklusiboa bereganatuko dugu. Horrela, murriztu egiten da imitatzailak agertzeko aukera, eta haiek lehia sortzeko arriskua.



- **Giza baliabideak:**

Gure langileen esperientzia oso garrantzitsua da gure proiektuaren arrakasta positiboa izateko.





Horregatik, beraien esperientzia propioa eta formakuntza lan egiteko oinarrizkoak dira.

Ekintzaile taldean 4 gara eta bakoitzak funtsezko baliabide batetaz arduratzen da:

**Maidar eta Lara** elkarlanean arituko dira, enpresaren arlo ekonomikoen inguruan. Alde batetik, finantzak, gure enpresaren jarduerak, obrak eta beste motatako gastuen ardura izango dute. Beste alde batetik, administrazioa eramango dute gure enpresaren irabazi ekonomikoak, diru sarrerak eta gastuak. Bestetik hornidura funtzioa ere beteko dute, erosketak, gure materialen eta beste motatako beharren ardura.

**Imanol**, aldiz, marketing arloaz arduratuko da. Marketina merkataritza-munduarekin lotutako jardueren sistema globala da, azken bezeroaren beharrak asetzen lagunduko duten produktuak edo zerbitzuak planifikatzera, prezioak finkatzera, sustatzera eta banatzera bideratuta dagoena. Bai epe luzerako estrategiak zein erabaki operatiboak finkatuko ditu.



**Iraia**, beste aldetik, langileen kontratazioaz eta giza baliabideetaz arduratuko da. Haien lana bideratuko du, lanorduak zehaztuko ditu eta beste honetako jarduera gehiagoetaz arduratuko da.

Ondorioz, guk osatzen dugun lan taldea funtsezko baliabidea da proiektuaren arrakastarako, gure proiektuak sinesten dugulako eta gure motibazioa gure ekintzak betetzeko beharrezkoak garelako.